

**LANKIDETZA-HITZARMENA,  
HAZI FUNDAZIOAREN ETA  
INNOBASQUE  
BERRIKUNTZAREN EUSKAL  
AGENTZIAREN ARTEKOA,  
GASTROELIKADURAREN  
BALIO-KATEKO ETE-ETAN  
BERRIKUNTZA  
BULTZATZEKO DENA**

**ACUERDO DE  
COLABORACIÓN ENTRE LA  
FUNDACIÓN HAZI Y LA  
AGENCIA VASCA DE LA  
INNOVACIÓN INNOBASQUE  
PARA IMPULSAR LA  
INNOVACIÓN EN LAS PYMES  
DE LA CADENA DE VALOR  
GASTROALIMENTARIA**

2020ko otsailaren 19a

A 19 de febrero de 2020

**BILDU DIRA / REUNIDOS**

Alde batetik, Asier Arrese (NAN-zk.: 35776405-G), Hazi fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz, zuzendari nagusi gisa. Fundazioak Abadiñon dauka helbidea (Muntsaratz auzoa 17-A, Muntsaratz dorrea, Bizkaia), eta G-48986137 IFK dauka.

De una parte, Asier Arrese con DNI 35776405-G en vigor, actúa como Director General en nombre y representación de Fundación Hazi Fundazioa, con domicilio en Barrio Muntsaratz 17-A, Torre Muntsaratz, de Abadiño (Bizkaia) y C.I.F. G-48986137.

Bestetik, Leire Bilbao Elgezabal, NAN-zk.: 30623562-M, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean "INNOBASQUE") izenean eta hura ordezkatzuz. Agentziak Zamudion dauka helbidea, Bizkaiko Teknologia Parkean, Laida bidea 203. Leire Bilbaok zuzendari nagusia den heinean eman dizkioten ahalmenak darabiltza.

De otra, Leire Bilbao Elgezabal, con D.N.I. número 30623562-M en vigor, actúa en nombre y representación de Innobasque - Agencia Vasca de la Innovación - Berrikuntzaren Euskal Agentzia, en adelante "INNOBASQUE", domiciliada en Zamudio, Parque Tecnológico de Bizkaia, Laida Bidea 203. Leire Bilbao hace uso de las facultades conferidas a su favor en calidad de Directora General.

Alde guztiek aitortzen diote elkarri, bakoitzak esku hartzeko duen kontzeptuan, lankidetzahitzarmen hau sinatzeko beharrezko lege-gaitasuna, eta, horretarako, honako hau

Todas las partes se reconocen, en el concepto en el que respectivamente intervienen, la capacidad legal necesaria para suscribir el presente acuerdo de colaboración y, a tal efecto

**ADIERAZTEN DUTE / MANIFIESTAN**

HAZI Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren

Que HAZI es un medio propio de la

Garapen eta Azpiegituretako Sailaren mendeko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren bitarteko propioa da, eta bere jardun-eremuan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea, sustatzea eta garatzea du xede. Bada, fundazioak lehenengo sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-eta itsasertz-inguruneak eta elikagai-industria ditu jardun-eremu, eta eremu horri balioa ematen laguntzen du, bai eta natura- eta kultura-ondareak kontserbatzen lagundu ere.

INNOBASQUE irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, Eusko Jaurlaritzak herri-onurakotzat joa (446/2013 Dekretua), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek, enpresa pribatuek, euskal erakunde publikoek, euskal enpresaburuen eta langileen ordezkari instituzionalek eta berrikuntzarekin zerikusia duten era guztietako erakundeek osatzen dute.

INNOBASQUEK, eginkizun nagusien artean, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzari laguntzen dio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana nahiz indarreko espezializazio-estrategia (RIS3) diseinatu eta zabaltzeko orduan. Halaber, bere egiten ditu islatutako lehenetasun nagusiak, eta INNOBASQUE osatzen duten eragileak lehenetasun horien inguruan lerrokatzen saiatzen da. Zentzu horretan, BERPIZTU PLAN ESTRATEGIKOA (2016-2020) eguneratzeko esparruan, INNOBASQUEK Euskadin dauden enpresa berritzaileen kopurua areagotzea du helburu (zehazki, ETE-ei dagokienez), Euskadik Regional Innovation Scoreboard indizean duen tokia hobetuko duten berrikuntza-adierazleetan aurrera egiteari begira.

HAZI eta INNOBASQUE modu aktiboan aritu dira elkarlanean nekazaritzako elikagaien balio-katean berrikuntza sustatzen, bai nekazaritzaren, abeltzaintzaren, arrantzaren eta elikagaien arloko politiken esparruan, bai zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko indarreko politiken esparruan. Bada,

Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria (en adelante VAPPA) del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco.

Que HAZI tiene por objeto y fin fundacional impulsar, promover y desarrollar la competitividad, sostenibilidad e innovación dentro de su ámbito de actuación, que comprenderá el sector primario (agrícola, ganadero, pesquero y forestal), el medio rural y litoral y la industria alimentaria, contribuyendo a su valorización y al mantenimiento del patrimonio natural y cultural.

Que INNOBASQUE es una entidad privada sin ánimo de lucro, declarada de utilidad pública por el Gobierno Vasco (Decreto 446/2013), formada por los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación; empresas privadas; instituciones públicas vascas; representantes institucionales de empresarios y trabajadores vascos y organizaciones de toda naturaleza relacionadas con la innovación.

Que INNOBASQUE, entre sus principales funciones, apoya a la Lehendakartzari del Gobierno Vasco en el diseño y despliegue del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación y la estrategia de especialización (RIS3) vigente. Asimismo, hace suyos las principales prioridades reflejadas, tratando de alinear a los agentes que componen INNOBASQUE en torno a las mismas. En este sentido, en el marco de la actualización de su PLAN ESTRATÉGICO 2016-2020 "BERPIZTU", INNOBASQUE se focaliza en incrementar el número de organizaciones innovadoras en Euskadi, en particular, pymes, para avanzar en los indicadores de innovación que contribuyan a mejorar la posición de Euskadi en el Regional Innovation Scoreboard.

Que desde la HAZI e INNOBASQUE vienen colaborando activamente en la promoción de la innovación de la cadena de valor agroalimentaria en el marco de las políticas de agricultura, ganadería, pesca y alimentación así como las políticas de ciencia, tecnología e

honako eremu hauetan finkatu da elkarlan hori:

- Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari eta HAZIRI loturiko laguntza-tresnak diseinatu eta ezartzea;
- KATILU kudeatzea. KATILU HAZIREN barruan eraturiko zerbitzua da, eta 2011n sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren harira sortu zen. Berrikuntzako brokertzat jotzen da, eta halaxe dago aitortuta Landa Garapenerako 2020ko Programan;
- INNOBASQUEK sustatzen dituen prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak aurrera eramatea eta
- Berrikuntzak balio-kate hori eratzen duten enpresen artean zer-nolako egoera duen ezagutzeko, INNOBASQUEK garatutako metodologiaren bidez.

**BI ERAKUNDEEK** beren jarduera-esparrua sendotu eta zabaldu nahi dute, Euskadiko gastroelikaduraren balio-kateko ETE-etan berrikuntza bultzatzeko xedez, aipaturiko politiken esparruan.

Azaldutako guztiagatik, eta kontuan izanda elkarren arteko lankidetzaren alderdientzat onuragarria izan daitekeela, honako LANKIDETZA-HITZARMEN hau ezartzea erabaki da, ondorengo klausulen arabera:

innovación vigentes. Dicha colaboración se ha enfocado en:

- el diseño e implementación de instrumentos de apoyo vinculados a la VAPPA y a HAZI;
- la gestión de KATILU, servicio articulado en el seno de HAZI, que surge en virtud del acuerdo de colaboración suscrito en 2011, y que es considerado Broker de Innovación reconocido por el Programa de Desarrollo Rural 2020 (PDR 2020); y
- las acciones de formación y sensibilización de la innovación promovidas por INNOBASQUE.
- la profundización en el conocimiento de la situación de la innovación entre las empresas que conforman dicha cadena de valor mediante metodologías desarrolladas por INNOBASQUE.

Que **AMBAS ENTIDADES** quieren consolidar y ampliar su marco de actuación para impulsar la innovación en las pymes de la cadena de valor agroalimentaria en Euskadi en el marco de las políticas mencionadas.

Por todo lo expuesto, y considerando que la colaboración mutua puede resultar beneficiosa para las partes, se decide establecer el presente ACUERDO DE COLABORACIÓN, el cual se rige por las siguientes

## KLAUSULAK / CLÁUSULAS

### LEHENEA: HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen helburua da beste bultzada bat ematea gastroelikaduraren balio-kateko ETE-en berrikuntzari, honako hauen bidez:

- 1.- Xede hori duten programa laguntzaileak diseinatu, garatu eta ebaluatzea.
- 2.- Balio-kate horretako enpresen artean

### PRIMERA: OBJETO DEL ACUERDO

El presente acuerdo tiene como objeto dar un nuevo impulso a la innovación en las pymes de la cadena de valor agroalimentaria mediante:

1. El diseño, desarrollo y evaluación de programas de apoyo con tal fin.

berrikuntza sustatzen duten agente zientifiko-teknologikoen jarduerak koordinatzea, KATILUREN bidez.

3.- Berrikuntzak balio-kate hori eratzen duten enpresen artean zer-nolako egoera duen ezagutzea, HAZIK edo INNOBASQUEK garatutako tresnak edo metodologiak erabiliz.

4.- Nekazaritzako elikagaien balio-kateari loturiko enpresei eta agenteei zuzendutako berrikuntzaren inguruan sentibilizatu eta gaitzea.

Hitzarmen honen eranskinetan, hala behar duten lan-ildoen izaera eta xedeak zehaztuko dira.

Bi erakundeek izango dute hitzarmen honen helburuaren irismena zabaltzeko aukera. Horretarako, jarduera-ildo berriak sartu beharko dituzte, hitzarmen honen eranskin berri gisa.

### **BIGARRENA: HAZI FUNDAZIOAREN KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK**

HAZIK honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

1. Jarduera-ildoak Eusko Jaurlaritzaren elikagai-berrikuntzaren arloko estrategiekin ahalik eta gehien lerrotatu daitezen behar den orientazio estrategikoa ematea.
2. Nekazaritzako balio-kateko ETE-etan berrikuntza sustatzeko ekimen, metodologia eta laguntza-tresna berriak sortzen, diseinatzen eta gidatzen laguntzea.
3. Garatuko diren proiektuak eta programak garatzeko behar diren ekipoa eta baliabideak ematea; zehazki, KATILU zerbitzurako euskarri dagokienez, behar bezala exekutatu eta koordinatu dadin.

2.- La coordinación de las actuaciones de los agentes científico-tecnológicos que promueven la innovación entre las empresas de dicha cadena de valor a través de la figura de KATILU.

3.- La profundización en el conocimiento de la situación de la innovación entre las empresas que conforman dicha cadena de valor a través del uso de las herramientas y metodologías desarrolladas por HAZI o INNOBASQUE.

4.- La sensibilización y la capacitación en torno a la innovación dirigida a empresas y agentes vinculados a la cadena de valor agroalimentaria.

En los Anexos del presente acuerdo se detallará la naturaleza y objetivos de las líneas de trabajo que lo requieran.

Ambas entidades podrán ampliar el alcance del objeto del presente acuerdo, mediante la incorporación de nuevas líneas de actuación como nuevos Anexos del presente acuerdo.

### **SEGUNDA: COMPROMISOS Y OBLIGACIONES DE FUNDACIÓN HAZI**

HAZI asume el compromiso de:

1. Aportar la orientación estratégica necesaria para garantizar el máximo alineamiento de las líneas de actuación con la estrategia del Gobierno Vasco en materia innovación alimentaria.
2. Cooperar en la ideación, diseño y pilotajes de nuevas iniciativas, metodologías e instrumentos de apoyo para la innovación en pymes en la cadena de valor agroalimentaria.
3. Aportar el equipo y los recursos necesarios para el desarrollo y ejecución de los proyectos y

4. KATILU zerbitzuko agente laguntzaileen sarea mugitzea, aurreikusten diren ekintzak eta ekimenak garatzeko orduan lagunduko dutela eta haien konpromisoa beteko dutela bermatze aldera.

#### **HIRUGARRENA: INNOBASQUEREN KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK**

INNOBASQUEK konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

1. Beharrezko orientabide estrategikoa ematea, jarduera-ildoak ahalik eta gehien lerrokatu daitezen indarreko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin.
2. Tokiko eta nazioarteko beste eremu batzuetan berrikuntza-politikak eta -programak diseinatzeko eta ezartzeko ezagutza eranstea.
3. Elikagaien arloko ETE-etan berrikuntza sustatzeko ekimen, metodologia eta laguntza-tresnak sortzen, diseinatzen eta gidatzen laguntzea.
4. Barne-mailako talde egokia izendatzea, ezarritako jarduera-ildoak garatzea bermatzeko.
5. Erakunde bazkideak mugitzea, aurreikusitako ekintzei laguntzeko; beti ere, elkartzeko xedearekin bat eginez.

#### **LAUGARRENA: JARRAIPIEN-BATZORDEA**

Jarraipen-batzorde bat ezartzen da, HAZIREN, INNOBASQUEREN eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren ordezkariak eratuko dutena. Bada, urtero egiten diren jardueren gaineko jarraipena eta balantzea egingo ditu batzordeak, eta, hala egokituz gero, hurrengo ekitaldirako jarduera-ildo berriak

programas a desarrollar, más concretamente en lo relativo al soporte necesario en recursos a KATILU para su correcta ejecución y coordinación.

4. Movilizar a la red de agentes colaboradores de KATILU para garantizar su contribución y compromiso en el desarrollo de las acciones e iniciativas previstas.

#### **TERCERA. COMPROMISOS Y OBLIGACIONES DE INNOBASQUE**

INNOBASQUE asume el compromiso de:

1. Aportar la orientación estratégica necesaria para garantizar el máximo alineamiento de las líneas de actuación con el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación vigente.
2. Aportar conocimiento sobre el diseño e implementación de políticas y programas de innovación en otros ámbitos locales e internacionales.
3. Cooperar en la ideación, diseño y pilotajes de nuevas iniciativas, metodologías e instrumentos de apoyo para la innovación en pymes alimentarias.
4. Designar el equipo interno adecuado para garantizar el desarrollo de las líneas de actuación establecidas.
5. Movilizar a sus entidades socias para apoyar las actividades previstas siempre que sea coherente con el objeto de la asociación.

#### **CUARTA: COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

Se establece una comisión de seguimiento conformada por personas representantes de HAZI e INNOBASQUE y VAPPA para el

ezarri.

### **BOSGARRENA: KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA**

HAZIK, INNOBASQUEREKIN batera, dagozkion jarduketan komunikazio- eta dibulgazio-estrategia finkatuko du, eta beharrezko elementuak zehaztu.

HAZIK ETA INNOBASQUEK hedatuko dute komunikazio-estrategia, eta, horretarako, erabilgarri dauden komunikazio-kanal propioak (offline eta online) erabiliko dituzte.

Bi erakundeek ikusgarri egingo dute elkarren arteko lankidetzaz, hitzarmen honetan jasotzen den jardueraren inguruan egiten dituzten komunikazio-ekintza guztiei dagokienez.

### **SEIGARRENA: DATUAK BABESTEKO LEGEA**

Bi alderdiek bermatzen dute trukaturiko datu pertsonalak hitzarmen honen helburu diren ekimenak behar bezala koordinatzeko bakarrik erabiliko direla. Bestetik, eranskinetan ezartzen diren jardueren arabera, hala badagokio, «datu pertsonalak tratatzeko enkarguak» eta «konfidentzialtasun-kontratuak» sinatzea eskatuko da.

### **ZAZPIGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA**

Sinatzen den egunean bertan jarriko da akordio hau indarrean, eta iraupen mugagabea izango du, ezarritako oinarritzko baldintzak mantentzen diren bitartean eta alde bietako batek berariaz kontrakoa adierazi ezean.

### **ZORTZIGARRENA: HITZARMENA SALATU ETA IRAUNGITZEA**

Alderdiek, ados jarrita eta aurretik jakinarazita, edozein unetan salatu edo aldatu ahal izango dute hitzarmen hau.

seguimiento y balance de las actividades llevadas a cabo anualmente y para el establecimiento, si procede, de nuevas líneas de actuación de cara al ejercicio siguiente.

### **QUINTA: COMUNICACIÓN Y DIVULGACIÓN**

HAZI junto INNOBASQUE determinará la estrategia de comunicación y divulgación de las actuaciones correspondientes y definirá los elementos necesarios.

HAZI e INNOBASQUE desplegarán dicha estrategia de comunicación, utilizando para ello los canales propios de comunicación, offline y online, disponibles en su caso.

Ambas entidades visibilizarán la colaboración conjunta en todas las acciones de comunicación que realicen vinculadas a la actividad recogida en el presente acuerdo.

### **SEXTA: LEY DE PROTECCIÓN DE DATOS**

Ambas partes garantizan que los datos de carácter personal intercambiados serán utilizados única y exclusivamente para la correcta coordinación de las iniciativas objeto de este acuerdo, y que, en función de la(s) actividad(es) a desarrollar que se establezcan en los distintos Anexos, en su caso, requerirá de la firma de contratos de “encargos de tratamiento de datos personales” y de “confidencialidad”.

### **SEPTIMA: DURACIÓN DEL ACUERDO**

El presente acuerdo entrará en vigor el día de su firma y tendrá carácter indefinido en tanto en cuanto se mantengan las condiciones esenciales del mismo y salvo manifestación expresa por algunas de las partes.

### **OCTAVA: DENUNCIA Y RESOLUCIÓN DEL ACUERDO**



Aldi berean, edozein alderdik jo ahal izango du hitzarmena amaitutzat. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko die beste aldeei, hitzarmenaren edo beronen luzapenen baten indarraldia amaitu baino hilabete lehenago gutxienez.

Bestetik, hitzarmen hau sinatzen duten alderdientzat hitzarmena iraungitzeko arrazoi izango da bertan jasotzen diren klausulak eta bere izaeraren ondoriozko edozein klausula ez betetzea.

### **BEDERATZIGARRENA: GATAZKAK KONPONTZEA**

Alderdiek hitzarmen hau betetzearen inguruan sor litezkeen desadostasunak hitz eginez eta negoziatuz konpontzeko konpromisoa hartzen dute. Ados jarri ezean, Bilboko auzitegi eta epaitegien mende jarriko dira.

Eta, ados daudela erakusteko, esku hartu duten alderdiek hitzarmen honen lau ale sinatuko dituzte, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

**INNOBASQUE - Berrikuntzaren Euskal Agentzia / Agencia Vasca de la Innovación**  
ZUZENDARI NAGUSIA / DIRECTORA GENERAL

Leire Bilbao Elgezabal

Las partes, por mutuo acuerdo, podrán denunciar o modificar el presente acuerdo en cualquier momento, previa comunicación.

Cualquiera de las partes podrá, a su vez, dar por finalizado el presente acuerdo comunicándolo por escrito a las otras partes con un mes de antelación a la finalización de la vigencia del acuerdo o de cualquiera de sus prórrogas.

Además, son causa de resolución para las partes firmantes del presente acuerdo, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo, y cualesquiera otras derivadas de su naturaleza.

### **NOVENA: RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS**

Las partes se comprometen a solventar, mediante el diálogo y la negociación, cuantas discrepancias pudieran surgir en lo que al cumplimiento de este acuerdo se refiere. En caso de que no se llegara a un acuerdo, se someterán a los juzgados y tribunales de Bilbao.

En prueba de la conformidad de las partes intervinientes firman por cuadruplicado el presente acuerdo, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**FUNDACIÓN HAZI FUNDAZIOA**  
ZUZENDARI NAGUSIA / DIRECTOR GENERAL

Asier Arrese